

Kuestazioa

Koldo Sagasti

Gaur ere bidean agertu zait, ustekabea, egunero lege osasun zentroko sarreran, peto berdea soinean, eta kateorrazdun lazoa paparrera luzatuz: «Diru-laguntzatxo bat minbiziaren aurka?». Saihestu nahi izan dut, segapotoaren pantailari begiratzuz, baina gaur ez naiz fin ibili eta parez pare topo egin dut sos-biltzailearekin. Berehalako erantzuna eman behar, eskaerari duintasunez iskin egiteko. «Barkatu, baina ni ez nago minbiziaren kontra». Donald Trump berbera ikusi izan balu bezala begiratu dit gajoak, eta nik alde egiteko baliatu dut konfusioa.

Argudiatu nahiko niokeen nire ezetza. Esan nahiko niokeen ez nagoela minbiziaren

kontra, eta alde ere ez; minbiziak ez daukalako kontzientziarik, ezta gu izorratzeko borondaterik ere; eta biziduna ez den kontzeptu baten kontra izatea alferrikakoa dela. Ihardetsi nahiko niokeen kontra izatekotan, minbiziaren gaineko ikerkuntzan murrizketak egiten dituztenen kontra nagoela, eta minbizidun gaixoak artatzeko osasun zerbitzuetako baliabideak gutxitzen dituztenen kontra. Horiexek bai, horiexek hezur-haragizkoak direla, eta izen-abizenak dituztela, eta alderdi politiko zehatz batekoak direla, eta erabaki politikoak hartzen dituztela erantzun nahiko niokeen; eta erabaki horien ondorioa dela ikerlariak erbestera behar izatea; eta,

besteak beste, minbiziak jotakoek behar bezalako zainketa ezin jasotzea; eta hala ere, jendeak oraindik ere bozkatzeko dituela. Arrazoitu nahiko niokeen limosna batez nekez lagunduko diodala minbiziari aurre egiteko ikerkuntzari, horretarako erabaki politikoak behar direla. Hori guztia esan nahiko niokeen, baina isildu egin naiz, errukitu naiz gajoaz, zer kulpa izango du berak! Azken batean, langile prekarioa baino ez da; gupidarik gabeko gobernuz kanpoko erakunde erraldoi baten abangoardia; ogibide duinago batean aritu nahi baina, besterik ezean, kale gorrian diru-eskean lan egin behar duena. Nahikoa dauka berearekin, nire erretorika entzuteko. •

Mari Paz

Mirari Martiarena

Frankistek 1936ko udazkenean Hernaniko hilerrian fusilatutakoei omenaldia egin zieten joan den larunbatean. Albistea irakurri aurretik amonak esan zizkidan omenaldiaren nondik norakoak. Inaxik, bere ahizpak, eguerdiko eguneroko telefono deiarekin egin zion kronika. Hernaniko hilerrian, gure familiaren panteoitik aurrerago joanda omen dago fusilatu zituzten horma. Bertan fusilatu eta lurperatu zituzten 200 pertsona. «Pertsonaren miseria, horrela hil beharra...», eta isilik geratu zen.

Ezin tentazioari eutsi eta galdezka hasi nintzen: ea umetako ze oroitzapen dituen, ea berak inguruan ba ote zuen fusilatutakorik, ea mendira ardiekin joandakoan

beldurrik sentitzen zuen... 79 urte egiteko dagoela, bera gerra ondorengo umea dela eta ez, ez duela gauza askorik gogoratzen. Onddi mendian, edozein zuhaitz bazterretan egurrezko gurutzeak izaten omen ziren, hildakoen seinale. Batzuetan bertan lurperatutakoak, bestetan auskalo nora eramanak. Bere gurasoek zalantza izan omen zuten berari zein izen jarri: Mari Paz ala Pilar. «Mari Paz? Zuri?». «Bai, gerra bukatu berria zen, eta, bakea zegoenez, hori pentsatu omen zuten. Baina nire amandreak Pilar izenarekin bataiatzea erabaki zuen, eta, azkenean, Pilar».

Bizi ditugun garaiek markatzen dituzte askotan gure umeen izenak. Hor ere modak eta boladak izaten dira. Nik dakidala,

30 urtez azpiko hiru gara Oiartzunen Mirari izena dugunak. Ez da ohiko izena edo ez behintzat moda-modakoa. Gero eta mirari gutxiago gertatzen dira nonbait. Oraingo umeen artean sumatzen ditudanak dira: Lur, Maddi, Aimar, Malen, Jare... Baina “Bakea” izenekorik ez.

Gure amonari Pilar izena jartzeko erabakia hartu zuen emakumearen tokian jarri naiz: balantzaren alde batean “Mari Paz”, eta, bestean, “Pilar”. Gerra bukatu berria izan arren, frankismoaren urte gogorrenak eta gordinenak ziren. Gosea eta sufri-mendua sukaldeetan. Emakume hark igarri zuen gerra bukatu arren benetako bakerik ez zela eta ume bati Mari Paz izena jartzea karga gehiegi jartzea zela. •